



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Nolatan duzue hain sinesmen gutxi?”

2021eko ekainaren 20a
Urteko 12. igandea (B)

Markos 4, 35-41

Egun berean, ilunabarrez, Jesusek bere ikasleei esan zien: “Goazen aintziraz bestaldera”.

Jende-taldea utzirik, zegoen txalupan bertan eraman zuten.

Jesus, beste zenbait untxi ere harekin batera bazen arren. Hortan, haize-bolada zakarra atera zuen, eta uhinek txalupa jotzen zuten, ia urez betetzeraino. Jesus, berriz, txopan lo, buruko baten gainean. Esnarazi eta esan zioten: -Maisu, ez al dizu axola gu galtzea?

Hark, esnaturik, haserre egin zion haizeari, eta aintzirari esan: -Hago isilik! Geldi!

Gelditu zen haizea eta dena bare-bare gelditu zen. Jesusek esan zien: -Zergatik beldur hori? Nolatan duzue oraindik hain sinesmen gutxi?

Beldur-ikaraz gelditu ziren, elkarri esanez: “Nor ote dugu hau, esana egiten baitiote haizeak eta aintzirak ere?”.

Zergatik beldur hori? Nolatan duzue oraindik hain sinesmen gutxi?

ZERGATIK ZARETE HAIN BELDUR?

Jose Antonio Pagola

Jesus eta haren ikasleak doazen itsasontzia ekaitz batek jo du, Galileako aintziran udako egun batzuetan ezustean eta harro sortzen diren haietako batek. Markosek pasadizo hori deskribatu du, une zailak bizi dituzten kristau-elkarteen fedea esnatzeko.

Kontakizuna ez da istorio lasaigarri bat, gaur egungo kristauak kontsolatzeko, Jainkoaren babesa aginduz Elizari historian patxadan ibiltzeko aukera emateko. Jesusen dei erabakitzailea da, une zailtan berarekin itsasbidea egiteko: «Zergatik zarete hain koldar? Oraino ez al duzue federik?»

Hasieratik prestatu du Markosek pasadizoa. Esan digu «*arratsa zela*». Laster estaliko du aintzira gau ilunak. Jesus izan da itsasbide arraro horren eragilea: «*Goazen beste ertzera*». Esapidea ez da batere inozentea. Elkarrekin joatera gonbidatu ditu, ontzi berean, beste mundu baterantz, ezaguna dutena baino harago: Dekapolis lurralde paganorantz.

Bat-batean, urakan zakar bat jaiki da, eta uhinek gogor jotzen dute ontzia, urez betez. Patetikoa da eszena: brankan, ikasleak borrokan, ezinean, ekaitzaren kontra; txopan, txoko altuxeagoan, Jesus lo, kuxin baten gainean.

Izuturik, Jesus esnatu dute ikasleek. Ez dute sumatu Aitarekiko Jesusek duen konfiantza. Harengan ikusi duten gauza bakarra, beraietaz axolarik ez izatea da. Beldurrak jota ageri dira eta urduri: «*Maisu, ez al dizu inporta gu hondoratzea?*»

Jesusek ez du zuritu bere jarrera. Zutik jarri eta konjuru antzeko bat bota du: haizea gelditu eta dena bare-bare egin da. Bake eta isiltasun handi horietaz baliatuz, bi galdera egin dizkie Jesusek, guganaino iritsi diren hauek: «Zergatik zarete hain koldar? Oraino ez al duzue federik?»

Zer ari zaigu gertatzen kristauei? Zergatik gara hain beldur aldi erabakigarri hauei aurre egiteko?, zergatik hain konfiantza txikia Jesusengan? Ez ote da hondoratze beldur hori blokeatzen gaituena? Ez ote da segurtasun bila itsu-itsu ibiltzea, aldi hauen irakurketa buru argiz, erantzukizunez eta konfiantzaz egitea eragozten diguna? Zergatik gara hain uzkur ikusteko, Jainkoa dela Eliza gidatzen duena Jesusi eta haren Ebanjelioari leialago izatera? Zergatik bilatzen dugu segurtasuna iraganean ezaguna eta eraikia den hartan?, zergatik ez dugu entzun nahi «beste ertzera igartzeko» Jesusen deia?, Jainkoaz axolagabe den, baina hartarainoko esperantza-beharra duen munduan Berri Ona apal-apal ereiteko.